

Orain zer



NEREA IBARZABAL SALEGI
BERTSOLARIA

Zer egin behar dugu orain, ‘orain’ honekin guztiarekin?”, esan zidan lagun batek krisi honen hasieran. Itogarria da orainaldia, batez ere etorkizunaren prestaketa soil bezala bizi izan baduzu beti; orain etorkizuna ezin da aurreikusi, beraz, orainaldirik ez dago orain.

Horregatik, iraganera sartu-irtenka igaro ditut bi hilabete, aspaldiko argazkiak arrantzatzen, Dumbledore bere pentsatokian lez; haren oroitzapen bakoitza substantzia argitsu urdinxka bat da, denboraren putzuan flotatzen, mantso, biraka, nahi duenean berrartu eta une hura birbizitzeko aukerarekin. Antzerako zerbait dira nire disko gogor guztiak, oharkabean igaro zaizkidan urteak, aldaezinak, isilpean madarikatzen ditudanak oraina baino hobeak iruditzen zaizkidalako batzuetan, edo lotsarazten nautelako, besteetan.

Eta iraganez asetzen naizenean, existitzen ez den zerbaitek urdaila betetzen didanean, beste denbora-espazio ezinezko batera egiten dut salto, ‘honen guztiaren amaierara’, eta hor hasten naiz penatzen beraien lekua berreskuratzen

Itotzen naiz pentsatuz
kiloka ari garela denok
antzerako gauzak idazten
eta irakurtzen;
nora doa pisu hori
guztia, adostasun
posible hori, gauzatuko
ote dugu noizbait,
orainaldiren batean?

hasiak ziren animalia basatiez, eta nire lagunen tripetan dauden biharko haurrez. Hasi naiz ulertzen nire izekok zergatik esaten zigun “ume koittauak” ikusten gintuen aldiro, animaliei eta haurrei ezin zaizkielako gauzak arrazoiaren bidez zuritu, beraiei ondorioak pairatzea baino ez zaielako geratzen. Itzuliko dira errepide ertzetara katuak eta azkonarrak hilda, ile zuriak pneumatikoz zinkinduak, errai arrosak zabal-zabalik, eta

guk ezin azaldu zergatik ezin duten bide hori gurutzatu ordu horretan.

Oraina saihesten dut desertuko hondar beroan mugitzen den kobra baten abilidadez. Gogo txarrez idazten dut, beldurrez irakurtzen ditut artikulua eta albisteak, eta itotzen naiz pentsatuz kiloka ari garela denok antzerako gauzak idazten eta irakurtzen; nora doa pisu hori guztia, adostasun posible hori, gauzatuko ote dugu noizbait, orainaldiren batean? Ez ote genuen dena hondar bustiaren gainean idatziko, eta lehenengo olatu handiaren itzulerak hartuko gaitu azpian, bainujantziak ipurmasailen artean sartuko dizkigu, eta sudurra gatzez bete?

Idea Vilariñok bere buruari isiltzeko eskatu zion poema batean, eta Garazi Arrulak honela ekarri zuen euskara: “(...) zer esan dezake inork, aurretik sekula esan kantatu idatzi ez denik...”; hori 1987ko martxoaren 27an, pentsa. Baina, hala ere, idatzi egin zuen poema hura, *Isil hadi* izenburuz, baina idatzi. Esan. Sortu. Ez isildu, azken finean. Eta iruditu zait badela hor orainaldi guztiei zentzua eman diezaiekeen indar bat. ●

Konfinamendua
arintzeko
ARGIAren
multimedia
kanala

Milaka bideo, guztiak euskaraz
edo euskarazko azpidatziekin.

ARGIA



argia.eus/multimedia